



ALTEren JOKABIDE-KODEA

SARRERA

1994an ALTEko bazkideek zera erabaki zuten: jokabide-kode formal bat onartzea ezinbestekoa zela. Kode horrek, batetik, orduko eta etorkizuneko bazkideek beren azterketak prestatzean betetzen saiatzea onartuko lituzketen estandarrak definituko lituzke eta, bestetik, azterketa horien kontsumitzaileei zer espero beharko luketen jakiteko balioko lieke.

Dokumentu honen sarreran azaltzen diren helburu nagusiak oso kontuan harturik diseinatu da jokabide-kode hori: konpetentzi maila amankomunak finkatu ahal izateko, mailaz gain kalitateaz ere izan behar dute testek konparagarri eta, ondorioz, horiek prestatzean estandar komunak aplikatu behar dira. Jokabide-kodeak estandar horiek jakinarazten ditu eta hizkuntz azterketen prestatzaileen eta erabiltzaileen ardurak azaltzen ditu.

ALTE-ren JOKABIDE-KODEA

Hizkuntz azterketen hornitzaileak diren neurrian, ALTEko bazkideek jokabide-kode bat ontzat eman nahi dute betetzen saiatzen diren estandarrak esplizitu egiteko eta beren funtzionamenduan dituzten betebeharrak aintzat hartzeko.

Jokabide-kodea diseinatzean eta betetzean, hizkuntz azterketetan estandarrak finkatu eta gordetzeko kontuan interesa dutenen eginkizun desberdinen artean berezi behar da. Honako hauek dira: azterketa-prestatzaileak, azterketa-erabiltzaileak eta azterketa-egileak.

Azterketa-prestatzaileak dira batetik azterketak benetan jarri eta eginarazten dituztenak eta, bestetik, testatze-programa jakinetarako politikak finkatzen dituztenak.

Azterketa-erabiltzaileak azterketak aukera ditzakete, azterketa prestatzeko zerbitzuak kontrata edo azterketa-emaizten arabera besteen hezkuntza-aukeretan eta lan-karreretan eragina duten erabakiak har.

Azterketa-egileak edota azterketariak dira, norbere aukeraz edota azterketa-erabiltzaileek hala aginduta, azterketak egiten dituztenak.

Jakina, azterketa-prestatzaileen eta -erabiltzaileen eginkizunak neurri batean bat etor daitezke: estatuko hezkuntza-agentziak azterketak prestatzeko zerbitzuak kontratatzen dituenean, prestatze-prozesu hori kontrolatzen duen politika finkatzen duenean eta emaizten araberako erabakiak hartzen dituenean, adibidez. ALTEko bazkideen kezkgune nagusia azterketak prestatzea eta eginaraztea da. Eginkizun horiek direla-eta,



azterketa-erabiltzaileekiko eta azkenean azterketak egiten dituztenekiko betebeharrak dituzte. Azterketa-erabiltzaileek hartutako erabakiek azterketa-egile edota azterketariengan eragin zuzena dute; horregatik, azterketa-erabiltzaileen betebeharrak ere jasotzen dira jokabide-kode honetan.

ALTEko bazkideek azterketa-egileen eskubideak lau arlotan jokabide-kode baten estandarrak betetzen ahaleginduz babestuko dituztela agintzen dute.

- Azterketen prestakuntzan;
- Azterketa-emaitzen interpretazioan;
- Zuzen jokatzeko ahaleginduz;
- Azterketa-egileei argibideak emanez.

Bi ataletan banatu da jokabide-kodea. Lehen atala ALTEko bazkideen arduretan zentratzen da eta bigarren atala azterketa-erabiltzaileen arduretan.

LEHEN ATALA — ALTE-KO BAZKIDEEN ARDURAK

AZTERKETEN PRESTAKUNTZAN

ALTEko bazkideek azterketa-erabiltzaileek eta egileek azterketa egokiak aukeratu ahal izateko behar duten informazioa eskainiko dutela agintzen dute.

Praktikan, honek esan nahi du ALTEko bazkideek honako hauek egitea hartzen dutela beren gain liburu honetan deskribatutako azterketei begira:

1. Azterketa bakoitzak zer neurtzen duen eta zertarako erabili behar den definitu. Zein jende-multzotarako egokia den deskribatu.
2. Mezu-jasotzaile desberdinentzat egoki den xehetasun-mailarekin kasuan kasuko neurketa-kontzeptuak azaldu, argi gera daitezen.
3. Azterketa prestatzeko prozesua deskribatu.
4. Edukina eta neurtu beharreko trebetasunak nola aukeratzen diren azaldu.
5. Azterketa-ariketen, azterketa-oharren, erantzun-orrien, esku-liburuen eta azterketarienezako emaitza-azalpenen lagin errepresentatiboak edota kopia osoak eskaini.
6. Azterketara aurkez daitezkeen arraza, etnia edo hizkuntza jatorri desberdina duten taldeentzat azterketa bakoitza egoki dela ziurtatzeko erabiltzen diren prozedurak deskribatu.
7. Azterketa bakoitza eginarazteko behar diren baldintzak eta trebetasunak finkatu eta jakinarazi.



AZTERKETA-EMAITZEN INTERPRETAZIOAN

ALTEko bazkideek azterketa-erabiltzaileei eta -egileei emaitzak zuzen interpretatzen lagunduko dietela agintzen dute.

Praktikan, honek esan nahi du ALTEko bazkideek honako hauek egitea hartzen dutela beren gain:

8. Azterketarien lorpenak argi eta zehatz deskribatzen dituzten azterketa-emaitzen azalpenak, atzerapenik gabe eta erraz ulertzeko modukoak, eman.
9. Gainditze-nota edo/eta mailak finkatzeko prozedurak deskribatu.
10. Gainditzeko notarik ez badago, orduan, halakorik ezartzea egokia denean, azterketa-erabiltzaileei nota horiek ezartzeko arrazoizko prozedurei jarraitzeko lagunduko dien informazioa eman.
11. Azterketa-emaitzen erraz aurrez ikus daitezkeen erabilera oker jakinen kontra erabiltzaileak ohartarazi.

ZUZEN JOKATZEN AHALEGINDUZ

ALTEko bazkideek beren azterketak jatorri desberdinetako (generoaren, etniaren, ezintasunaren eta abarren arabera, kasu) azterketarientzat ahal bezain justuak izan daitezen ahaleginduko direla agintzen dute.

Praktikan, honek esan nahi du ALTEko bazkideek honako hauek egitea hartzen dutela beren gain:

12. Gogortzat har daitekeen edukina edo hizkera ebitatzeko, ariketak eta horiei dagozkien materialak gainbegiratu eta berrikusi.
13. Emaitzetan dauden aldeak nagusiki neurtu nahi diren trebetasunei eta ez zerikusirik ez duten faktoreei, hots, generoari edota jatorri etnikoari, zor zaiela ziurtatzen laguntzeko prozedurak indarrean jarri.
14. Ahal denean, ezintasunezko ezaugarriak dituzten azterketarientzat azterketen eta administratzeko prozeduren era egokitu aproposak eskueran jarri.

AZTERKETA-EGILEEI ARGIBIDEAK EMANEZ

ALTEko bazkideek azterketa-erabiltzaileei eta -egileei ondoan deskribatutako argibideak helaraziko dizkietela agintzen dute.

Praktikan, honek esan nahi du ALTEko bazkideek honako hauek egitea hartzen dutela beren gain:

15. Azterketa-erabiltzaileei eta -egileei informazioa eman azterketa jakin batera aurkeztu behar den edota aukeran dagoen gorago edo beheragoko mailako azterketa erabili behar den erabakitzeko.
16. Azterketariak azterketan zer sartzen den, ariketa-formatuen tipoak, galdera-formulazioak eta bestelako oharrak eta azterketa egoki egiteko estrategiak ezagut



ditzaten behar diren argibideak eman. Azterketari guztien eskueran halako informazioa neurri berean jartzen ahalegindu.

17. Azterketariak azterketen kopiak eta betetako erantzun-orriak eskuratzeko, azterketa berriro egiteko, azterketak berriro zuzenarazteko edo emaitzak konprobarazteko dituzten edo ez dituzten eskubideei buruzko informazioa eman.
18. Emaitzak zenbat denbora artxiboetan gordeko diren jakinarazi eta nori eta zein baldintzapean azterketa-emaitzak eskuratuko zaizkion azaldu.

BIGARREN ATALA — AZTERKETA-ERABILTZAIILEEN ARDURAK

Azterketa-erabiltzaileek azterketa-prestatzaileengandik lor dezakete azterketei buruzko informazioa eta beraiei dagokienean jokabide-kodea informazio horren erabilera egokiaz aritzen da. Azterketa-prestatzaileek bezala, azterketarietako betebeharra dute eta jokabide zuzeneko estandar altuak finkatu eta errespetatzeko konpromezua dute. Ardura horiek lau arlotan deskribatzen dira ondoren: azterketa egokien aukeraketan, azterketa-emaitzen interpretazioan, zuzen jokatzeko ahaleginduz eta azterketa-egileei argibideak emanez.

- Azterketa egokien aukeraketan

Azterketa-erabiltzaileek helburuari egokitzen zaizkion eta begiz jotako azterketari-jendearentzat egokiak diren azterketak aukeratu behar dituzte.

- Azterketa-emaitzen interpretazioan

Azterketa-erabiltzaileek zuzen interpretatu behar dituzte emaitzak.

- Zuzen jokatzeko ahaleginduz

Azterketa-erabiltzaileek jatorri desberdinetako (generoaren, etniaren, ezintasunaren eta abarren arabera, kasu) azterketarietarako ahal bezain justu bihurtzeko ahaleginean prestatzen diren azterketak erabili behar dituzte.

- Azterketa-egileei argibideak emanez

Azterketa-erabiltzaileak azterketarietarekin harreman zuzenak dituztenean, ALTEko bazkideentzat Lehen Atalean *Azterketa-egileei argibideak emanez* izenburupean zerrendatzen diren eginbehar gehienak bereganatu behar ditu.

Washington D.C. Joint Committee on Testing Practices-ek prestatutako The Code of Fair Testing Practices-ekiko zorra aitortzen da.

© Association of Language Testers in Europe
Translated by Basque Government (Department of Education.-EGA directorate)